

IKT-n erabilera gazteen sexualitateen arretan: errealitateak eta aukerak ikastaroaren balorazioa

Gazteen Euskal Behatokiaren 2015eko Prestakuntza Planaren lehen ikastaroa egin da Bilbon

IKT-n erabilera gazteen sexualitateen arretan: errealitateak eta aukerak ikastaroa egin da Bilbon, 2015ko **urtarrilaren 15, 22 eta 29an**. Ikastaro honen helburua honakoa izan da: gizarte eragileak neska eta mutilen arteko tratu onetan oinarritutako harremanei arreta eskaintzen jarraitzea, azken hauek sustatuz, gaur egun, gazteek komunikaziorako eta harremanetarako erabiltzen dituzten bide berriak kontuan izanda.


Ikastaroa **Emaize Sexologia Zentroko** sexologoek eman dute.

17 lagunek partehartu dute ikastaroan, honako lanbide-profilak dituztenak:

- Gehienak, % 54, gazteen arloko langileak (gazte informazioa, udalak, aldundiak, gazteen elkarteak, gizartearen eta hezkuntzan esku hartzen duten taldeak eta beste erakunde batzuk) izan dira.
- Bestetik, beste % 39 hezkuntza arautuari lotutako lagunak izan dira.
- Azkenik, % 7 gazteriaz aparteko beste eremu batzuetan (inmigrazioa, generoa, sexualitatea, drogomenpekotasunak, etab.) lan egiten dute.

Ikastaroak 15 orduko iraupena izan du, hiru egunetan banatua eta ikasleen batez besteko balorazioak honako hauek izan dira (0tik 10era bitarteko eskalan):

IKASTAROAREN BALORAZIOA (batez bestekoa, 0tik 10era doan eskalan)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, ikastaroan parte hartu dutenen artean egindako balorazio inkestatik